

ABRAHANen BIDEETAN

Jerusalendik 7 bat kilometrotara dago Ein Karem (Ain Karim edo Ain Kerem) herritxoa, gaur egun Jerusalem hiri zabalaren hauzo bihurtua. Mendimaginean dago kokaturik, eta mendiz inguratua eta babestua. Mendi arteko zokoune zoragarria, pinuz, olibondoaz eta artez jantzia.

Jerusalem aldeko gainaldetik hiri-hauzo modernoko etxandi erraldoiak "mehatxatzen" ari zaizkio; baina oraindik bere "baserri"-kutsua eta bakea ez ditu galdu. Bizileku benetan baketsua! Mendi-aldeetako batean dagoen **Hadasa**, Israelgo hospitalik handienak, edota bestean dagoen Hebraiarren holokaustoaren museoa ez dute inola ere bake hori hausten.

Hiru bat hilabete badira, neure bizilekua hemen dudala, San Joan Bataialaria jaio zeneko eta Mariak bere lengusina Elisabet haurduna bisitatu omen zueneko honetan. Bada iturri bat --herritxoaren izenak "mahastiko iturria" esan nahi du--, **Birjinaren iturria** deritzana. Gaur egun juduen herria da erebat; 1948re arte, ordea, erebat palestiniarrena zen. Gerrate hartan denek ihesezin behar izan zuten. Bi santutegietako --San Joan Bataialariaren eta Bisitazioko santutegietako-- fraideez, monastegi errusiarreko serora ortodoxoek eta serora katolikoen beste hiru komunitatez aparte, ez dago kristaurik herritxo honetan.


Biblistek, kristau-tradizio nagusienak eta arkeologiak hementxe jarri izan dute, bada, S. Joan Bataialariaren jaioterria eta bertara etorri bide zen

Maria, bere lengusinari laguntzera, S. Lukaren Ebanjelioaren arabera. "*Handik egun batzutara, Maria, etxetik atera eta, Judeako goierri aldera joan zen arin-arin, hango herri batera*"...

Bazter aparta irakurketarako eta menditaziorako, eta abiapuntu egokia Palestinako eta Ekialde Hurbil honetako historian eta misterioan murgiltzeko. Lehen hilabeteetako bizialditxoaren ondoren, bidezko iruditu zait neure esperientzien eta gogoeten emanaldi-apurrak **Herria-2000-Eliza** aldizkariaren irakurleei eskaintzea, **Judeako Goierri** honetatik.

Gauko Israelen erdi-erdian aurkitzen naiz Ein Karem honetan; eta Palestinaren bihotzean. Palestinaren eta Israel Herriaren lurrian eta historian ezin zaitezke murgildu, ordea, Ekialde Hurbileko historiara eta geografia zabalera begiratu gabe. Zubiarena, tarteko lurraldearena, egin izan du beti Palestinak lurralde hauetako Herri eta Tribuen, inperio eta zibilizazioen artean: Tigris/Eufrate ibaien ibar zabaletatik, Ararat, Taurus eta Amanus mendien oinetara igo, Siria eta Feniziatik (Libanotik) behera jaitsi, Palestinan geratu, Sinaiko basamortua zeharkatu, eta Egiptoko Nilo opararen magalean gora Luxor (Theba), Assuan, eta Sudaneko lurraldeetaraino.

"*Fertile Crescent*" edo Ilgora Emankorra izendatu ohi dute historiagile eta geografoek Mesopotamia-Siria-Fenizia-Palestina lurralde-zirinda hau, haziaren doan ilargiaren edo "*croissant*"-aren tankera duelako. Hala



Paulo Agirrebaltzategi.

ere, ezinezkoa da **Fertile Crescent** horren historia Egiptoko Niloren ibar oparoaren historiatik kanpo ikustea, ez kulturaren, ez ekonomiaren eta ez politikaren aldetik. Aski da, antzinantzinatik Egiptotik Mesopotamia barrenearaino doazen eta lurralde osoak lotzen dituzten errepide nagusiak kontutan hartzea: horietatik ibili dira antzinako merkatariak beren gameluekin nazioarteko merkataritzan; horietatik ibili dira ejerzito konkis-tatzaileak. "*Via maris*" --Itsasaldeko errepidea-- edo "*Via regalis*" --benetako **errepidea**, basamortua zeharkatzen zuena dira Ekialde Hurbileko Herri eta Erreinuen arteko harreman nazioartekoaren testigu historikoak. Benetako autopista horien artena, beste hainbat bidek lotzen zituen Mediterranea barrualdearekin, erreinu txiki eta tribuen lurraldeak eta beduinoen ibilera zabalak.

Bide horietxetatik ibili zen historiako gizon erranteen ereduak: **Abraham!** Kaldeado bazterretik hasi eta Egipto barruraino ezagunak zituen berak gure lurralde honen errepide, ardidibe eta bestelako bidexka guztiak.

Hiru ibai handi eta harro dira Lurralde honen ardatz nagusiak: Tigris/Eufrate, alde batetik, eta Nilo, bestetik. Tartean Jordan apala eta Fenizia/Libanoko mendiartekatiko ibai txikiagoak. Lurralde emankorren emankortasunaren iturriak, Herrien erlijio lurtarraren erreferentzia sakratu behinenak.

Geografiak berak eman die Ekialde Hurbileko Herriari Mugagabearen eta Infinitoaren zentzu irekirako oinarria; Horren garaitasunezko, zabaltasunezko eta sakontasunezko dimentsioez biziera osoa eta zibilizazioa betetzeko. Iparraldetik babesten duten Persiako, Kurdistaneko eta Turkiako mendi-kate garaiek eta erdi-erdian altxatzen den Hermon gailurak ematen diote gure Lurraldeari misterioaren garaitasunaren zentzusa; ekialdean Arabiako eta hegoaldean eta mendebaldean Egiptopoto eta Lybiako basamortu amaigabeek, misteioaren zabaltasunaren begirada. Hiru itsasok --Mediterraneoak, Itsaro Gorriak eta Pertsikoak-- eskaintzen dizkiote misterioaren sakontasunerako ateak.

Marko geografiko honetan uler daiteke Ekialde Hurbileko zibilizazioen misterio handia. Marko honetan kokatu behar ditugu Abrahamen ibilerak, misteriozko ahots indartsuak bultza-tua eta misteriozko destinoaren zentzu biziak gidatua.

Eskolan ikasi genituen Lurralde honetako Herri eta inperioen gorabeherak, ibilerak eta krazioak datu solte eta hotz gelditu zaizkigu gogoan, data eta izen soil gisa: Akadiarrak, Babiloniarrak, Assiriarrak, Feniziarak, Persiarrak, Egiptoko erregealdi luzeak eta 30 dinastiak, Alexandro Handiaren konkistak eta inperioa, Erromatarren eta hemengo erreinuen arteko gerrateak (Marko Antonio, Ponpeio, Kleopatra)...

XIX. eta XX. mendeotako aurkikunde arkeologikoez ateratzen diren datuak, kanpora eta argitara Lurralde



hauetarako Herrien sormenaren fruitu artistiko, arkitektoniko eta literarioak; eta horien filosofiazko eta erlijiozko pentsaera eta bizieraren misterioak ezaguterazi dizkigute. Babiloniako palazioak eta zigurat-ak, Egiptoko piramide eta tenpluak, Salomonen Jerusalemgo Tenplua, Herode Handiaren gotorleku eta eraikuntza erraldoiak... Lurralde hauen kulturazko sormenaren eta zibilizazio-historiaren agerpen nabarmeneak besterik ez dira, Herrien bizieraren eta pentsaeraren aberastasuna eta oparotasuna neurri batez agertzen diren diskigutenak.

Horieta dirak, hain zuzen, Bibliaren lurraldeak eta herrialdeak ere. Biblia bera dugu horien historia luzearen testigantzarik handiena. Herri txiki batek, Lurralde zabal honen erdi-erdian kokaturikoak, sortu eta eraikuriko monumentu idatzirik bikainena dugu Biblia, Jainkoak bere Herri aukeratuari eginiko salbamen-errebeldiaren testigantza izateaz gain.

Bibliatik begiraturaz, hain zuzen ere, Abrahamen irudia nabarmentzen zaigu testigu pertsonal gisa. Lurralde hauen historia-misterioetan murgiltzeko le-

hen egitekoa, Genesiari 12-25 kapituluak irakurtzea dela uste dut.

Ur Kaldeakotik abiatuz Egiptoraino iristen den arte, eta Hebron eta Negev-eko basamortuko lurraldeetan bere ibilerak egiten dituenean, goi-ahots eta destino handiak gidaturiko gizon zuzena agertzen zaigu Abraham: Jainko Bakarraren mezulari mutua; monoteismoaren testigu ozena. Hitz gutxi gizona; Goikoaren ahotsa entzuteko etengabe erne egon nahi duela dirudi; bere erantzun bakarra hauxe du: *"Hona ni, Jauna! Fedezko obediencia! Ekialde Hurbileko historia luze eta misteriozko honetan Abraham iruditzen zait agertzen zaigula lekukorik handiena"*. Berak ibilitako bidetarik ibili beharra dagoela uste dut, Lurralde hauen eta Herrialde hauen historia ezagutzeko eta horien misterioan barneratzeko.

Ez Biblia, ez Judaismoa, ez Kristautasuna eta ez Islamismoa dago ulertzerik, Jainkoaren, Goikoaren ahots misteriozko eta behartzaileak gidaturiko errante porrokatu honen ibilerak ibili gabe. Hiru erlijio monoteistek aitortzen dute Abraham beren patriarka nagusizat eta Jainko Bakarraren lehen profeta ixil baina testigu irmotzat.

